



OINARRIAK

GAIA

Aurkeztutako lanek edozein animazio teknikez eginga izan beharko dute (marrazki, plastilina, flash, etab.).

Edizio honetan, animazioek ondorengo esaldian laburtzen den gaiari egin beharko diote aipua: "bake bideak: indarkeri eza eta elkarrizketa". Gaiari buruzkoak ondorengo estekan aurkituko dituzue:

www.fundacioperlapau.org/concurs/cast/documentate2009.htm

Ez dira onartuko animazio interaktiboak.

HELBURUAK

Lehiaketako helburu nagusiak dira:

-Bake kulturaren alde egiten duten animazio digitala bultzatzea, sustapenak eta bakearen sentsibilizazioak komunitate artistikoarekin duen lotura aniztu dadin.

-Animazio filmen ondare egonkor bat sortu, Fundació per la Pau elkarteak gestionatua, eta bake kulturaren balore propioak sustatzen dituzten pertsona eta entitateen esku daudelarik.

NORK HAR DEZAKE PARTE

Lehiaketan hala nahi duen pertsona fisiko eta juridikok har dezake parte, argitaratu gabeko lan bat aurkeztuaz. Gehienez ere bi lan aurkeztu daitezke kategoria bakoitzeko.

KATEGORIAK

Bi modalitate ezberdin edukiko ditu lehiaketak:

-Spot: gehienez ere minutu bateko iraupena duten animazioak izango dira. Bereziki web orrialdetan eta posta elektronikoko bidez zabaltzeko pentsatuak.

-Laburmetraiak: Minutu batetik aurrerako iraupena duten animazioak izango dira. Internet bidez banatuak izan ahalko diren arren, pentsatuak daude DVD bidez zabaltzea ekintza kultural, hezigarri eta bakearen sentsibilizaziorako.

Honetaz gain, bi maila egongo dira:

-Junior: 18 urtetik beherakoak, bereziki ikasleei zuzendua, D.B.H.-ko ikasleak, etab.

-**Senior**: 18 urtetik gorakoak, net.art artistei zuzendua, animaziogile profesionalak, web orri dinamiko burutzaileak, flash animazio zaleak, eta parte hartu nahi duen ororentzat.

SARIAK

Lan sarituak eta Kalitate ona duela eta, epaimahaiak komenigarri deritzon lanak **DVD batean bilduko dira**, guztira 1000 kopia egingo direlarik esparru kultural eta hezigarritan banatzeko, salgai ere egongo delarik. Aurreikusita dagoelarik **jaialdi eta lehiaketa ezberdinetan erakustea**, zinean proiektatzea, **telebistan emititzea** eta forma iraunkor batez lehiaketako **web orrian eskegita egongo dira**.

Gainera, diruz sarituak ere izango dira:

-Spot junior: 300 €

-Spot Senior: 300 €

-Junior laburmetraia: 600 €

-Senior laburmetraia: 600 €

-Publikoaren saria: 200 €

HIZKUNTZAK

Edozein hizkuntzatan aurkez daitezke lanak. Katalana, gaztelera edo eta ingelesa ez den hizkuntza batean aurkeztu ezker hiru hauetako batez idatzitako testua aurkeztu beharko da.

IZENEMATE EPEA

2010eko apirilak 30a izango da lanak jasotzeko azken epea.

Izenematea burutzeko, web orriko [inskripzio orria bete beharko da](#).

FORMATU ETA LANN AURKEZPENA

Filmak reproduktore libre eta multiplataforma den Videolan-ek irakurgarri duen formatu batean aurkeztu beharko dira (www.videolan.org web orrian aurki daiteke dohain). Lana Flash bidez burutu bada, originala formatu honetan delarik osatu ahal izango da aurkeztea.

Lanen aurkeztea honela burutuko da:

- 1) **CD edo DVD-a bidalita helbide honetara, Fundació per la Pau** (c/Casp,31,2n 1aA-08010 Barcelona) inskripzio orriaren kopia inprimatu batekin.
- 2) **Lana lehiakide beraren serbidorean eskegita** eta esteka eman ez izenematea on-line egitean.

Ez dira inolaz ere onartuko posta elektronikoz bidalitako lanak.

BAIMENAK ETA BANAKETAK

Lehiaketak Bake kultura zabaltzea, eta gizartean eragitea helburu duelako, obra guztiak **Creative Commons** lizentziaren menpe egongo dira egilearen eta Fundació per la Pau-ren izenean, baimena ematen duelarik kopiak egiteko, banatzeko eta publikoki lana emititzeko, beti ere baldintza batzuk beteta. Ikus baldintza guztiak:

<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/2.5/es>

Jasotako kopia guztiek Fundació per la Pau-ren ondare izatera pasako dira, mantentzeaz eta erabiltzeaz arduratuko delarik.

Parte hartzaile errealizadoreek aurkeztutako lanaren jabe direla aitortzen dute eta hitzematen dute ez dutela aurkeztuko jabetasunik ez duten ikus-entzunezko eta fonografiko materialik (musika, irudi, pertsonaia, produktu, etab.). Erakundeak ez du beregain hartzen obren egileen jabego intelektualaren eskubideen erabilpen desegokia.

EPAIMAHAIA

Aldez aurretik erakundeak aukeratutako epaimahaiak erabakiko du saria, desertu gera daitekeena. Aipu bereziak ere egin ditzake inongo diru irabazirik gabe.

Epaimahaiaren erabakiak behin betikoak eta aldaezinak izango dira.

EBENTUALTASUNA ERABAKITZEKO ESKUBIDEA

Erakundeak oinarriotan agertzen ez den edozein ebentualtasun eskubidea erreserbatzen du.

OINARRIEN ONARTZEA

Lehiaketan parte hartzeak esan nahi du egileak oinarriok onartzen dituela.